



**Arartekoaren 2019R-501-19 Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio prestazioak erreklamatzeko prozedura bat berrikus dezala, ez baitira bete jakinarazpena burutzeko aurreikusten diren berme formalak, eta, ondorioz, erreklamaturiko zorra preskribatzea erabaki dezala.**

### Aurrekariak

1.- Arartekoak kexa onartu zuen, izapideak egiteko. Bertan, Lanbideren jardunarekin ados ez zegoela adierazi zuen herritar batek.

Zehazki, kexagileak erakunde honi jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailak igorritako premiamendu-probidentzia baten berri eman zitzaiola — ordainketa-erreferentzia: 180343685221— eta, horren bidez, Lanbiderekiko zuen zor bat betearaziko ziotela jakinarazi zitzaiola.

Itzultzeko prozedura —2016/REI/01954— diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa bidegabe jasotako prestazioak direla-eta abiarazi zen, eta nahiz eta zorraren hasierako zenbatekoa 2.932,49 eurokoa zen, azkenean, 3.229,44 eurora arte igo zen, premiamenduzko bideari zegokion errekaruarekin.

Kexagilea eta bere bizikidetzta-unitatea prestazio ekonomikoen titularrak izan ziren; Lanbidek, 2015eko urriaren 24ko ebazpenaren bidez, prestazio horiek ez berritzea ebatzi zuen arte, lanaren ziozko diru-sarrerak igo ostean, jadanik ez zituztelako betetzen baldintzak.

Gero, Lanbidek 2016ko ekainaren 13ko ebazpenaren bidez ebatzi zen itzultzeko prozedura abiarazi zuen. Interesdunaren arabera, ez zuen horren inguruko jakinarazpenik jaso eta Lanbidek erakunde honi jakinarazi dio biei eman zitzaiela horren berri, 2016ko maiatzen 7ko eta 2016ko abuztuaren 23ko BOEn argitaratu baitziren, hurrenez hurren.

Zenbatekoa ez zenez borondatezko epean ordaindu, Lanbidek bide betearazlea abiarazi zezala eskatu zion Ogasun eta Ekonomia Sailari. Interesdunak betearazpen-prozedura abiatuko zela jakinarazi zion premiamenduzko probidentziaren aurkako errekurtsua jarri zuen Zuzeneanen aurkeztu zuen idatzi baten bidez, Eusko Jaurlaritzaren erregistro orokorra, 2019ko otsailaren 7a.





Errekurtso hori ezesten duen ebazpena eman da, honetan oinarrituz: goian aipatutako espedientea ebazteko jakinarazpena zuzen egin zela eta, hortaz, era honetako ezaugarriak dituen prozedura baten aurka jotzeko arrazoi bat bera ere ez zegoela —Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduaren arabera—.

Kexagileak Ogasun eta Ekonomia Sailari zor dion zenbatekoa ordaindu dio, aipaturiko sailarekin zorraren zatikapena hitzartu ostean.

2.- Arestian aipaturiko gertaerak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat bidali zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

Zehazki, honako alderdi hauen inguruko informazio gehiago eskatu zen:

- a) *Aztertu beharreko kexaespedienteari dagokionez, mesedez, argi ezazu interesdunak 2018ko urriaren 12an ordainketa zatikatzeko eskatu arren, zergatik ez zaizkion zenbatekoak borondatezko epean deskontatu eta zergatik bideratu den espedientea, azkenean, betearazpen-bidera.*
- b) *Horrekin batera, argi ezazu herritar horri jakinarazi zaion zein den Lanbideri zorra borondatezko epean ordaintzeko modua, baldin eta alde zurretik utzi bazaio prestazioen titular izateari.*

3.- Hona hemen Lanbideko zuzendari nagusiak eman duen erantzuna, laburbilduta:

*“Interesdunak, gaur, itzultze-espeditente bat du soilik betetzeke Lanbiderekin, alegia, 2016/REI/006479 espedientea, 2011/RGI/005565 espedientearekin lotzen dena.*

*Lanbiderekin duzun zorraren zatikapenari dagokionez -2016/REI/006479 espedientearen ondoriozko zorra dena-, ezin izan zen zatikatu eskatu zen datan (2018ko urriaren 12an); izan ere, borondatez ordaintzeko epea amaitu zen, eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren premiamendu-bidera pasatu zen 2018ko martxoaren 09an. 2018ko azaroaren 30a. Nolanahi ere, argitu behar da zorraren borondatezko ordainketa mantendu egin zela 2016ko abuztuaren 23an EHAAz azkenekoz jakinarazi zenetik, 2018ko martxoaren 09an premiamendu-bidera pasatu zen arte.*

*Izan ere, jakinarazpenak EHAA-ren bidez egin ziren, **eskuz egiten saiatu arren ezinezkoa izan baitzen**. Honako hauek jakinarazi ziren: ez berritzeko*





*ebazpena kopuru bidegabeak hartu izanarekin batera (2016/02/29ko EHAA); itzultze-prozeduraren hasiera (2016/05/07); eta itzultzeko obligazioaren ebazpena (2016/08/23).”*

4.- Arartekoak, arestian aipaturiko erantzuna aztertu ostean, egiaztatu zuen, Lanbidek prestazio ekonomikoen erreklamazioaren harira gauzatu zituen jarduketa desberdinak zehazten ziren arren, ez zela interesdunaren etxebizitzan itzultzeko ebazpenaren berri emateko egin ziren saiakeren ziurtagirien berri eman.

Hori beharrezkotzat jo zen, egiaztatzeko, Lanbidek aipaturiko ebazpenen berri eman zuela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 40. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

Hori dela eta, azalpen bat eskatu zen, Arartekoari zuzenduriko idatzian, alde aurretiko informazio-eskaerari erantzunez, ez zelako alderdi horren inguruko behar bezalako informaziorik eman.

Hori dela eta, informazio gehiago eskatu zen, Arartekoari zuzenduriko idatzian, alde aurretiko informazio-eskaeraren erantzunez, ez zelako alderdi horren inguruko behar bezalako informaziorik eman.

5.- Bigarren informazio-eskaerari erantzuteko, Lanbideko zuzendari nagusiak egindako txosten bat sartu zen erakunde honetako erregistroan. Jakinarazpen-saiakerak egiaztatze aldera, txosten horri hartu-agiriaren frogagiriak eta etxebizitzan egindako jakinarazpen-saiakerak erantsi zitzaizkion.

Jakinarazpen-saiakera horiek aztertzerakoan, antzeman da itzultzeko prozeduraren hasieraren berri emateko lehenengo saiakera kexagilearen ohiko bizilekuan egin zela 2016ko martxoaren 9an, 12:35ean. Bigarren saiakera martxoaren 10ean egin zen, 11:30ean.

Bestalde, itzultzeko ebazpena jakinarazteko lehenengo saiakera kexagilearen ohiko bizilekuan egin zen 2016ko ekainaren 24an, 12:35ean. Bigarren saiakera ekainaren 28an egin zen, 11:35ean.

6.- Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:





## Gogoetak

1.- Kexaren sustatzaileak Lanbideren jarduketarekin ados ez zegoela azaldu zuen, ez baitzion aukerarik eman borondatezko ordainketa-epean zenbateko egokia ordaintzeko; ez baitzuen prozeduraren hasieraren berri izan; ez eta osteko ebazpenarena ere.

Ez zuen desadostasunik azaldu, bestalde, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharraren harira; izan ere, lanaren ziozko diru-sarrerak izan baitzituen aipaturiko aldian.

Prozeduraren hasieraren jakinarazpena zein itzultzeko ebazpenaren jakinarazpena aztertu beharreko gertakarien erdigunean zeudela kontuan hartuta, Arartekoak aipaturiko administrazioari eskatu zion justifikatu zitzala prozeduraren bi fase horiek aurrez aurreko jakinarazteko erabili zen bidea nahiz kexagileak jakinarazpena jaso zuela ahalik eta modurik argienean ziurtatzeko bermeak betetze aldera gauzatu ziren jarduketak.

Aurrekarietan aurreratzen zen bezala, defentsa-bulego honek jakinarazpen-saiakeraren frogagiriak eskuratu ondoren, egiaztatu da enplegurako erakunde autonomoa itzulketa-prozeduraren hasiera zein erreklamatzaillearen etxean itzultzeko betebeharra adierazten zuen ebazpena jakinarazten saiatu zela. Baina, bi kasuetan egun desberdinetan saiatu bazen ere, ez zuen egin ordu-tarte desberdinetan (saiakera guztiak goizez egin ziren, 15:00ak baino lehen).

Zentzu horretan, jakina da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, 39/2015 Legea) administrazioa behartzen du interesdunei jakinaraztera bere eskubide eta interesak ukitzen dituzten administrazio-egintzak eta, horrez gain, egintzen eraginkortasuna jakinarazpen hori egitearen menpe uzten du (39. eta 40. artikulua) eta arauak berak, paperezko jakinarazpenei buruzko 42. artikulua bigarren atalean honako hau aurreikusten du: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egiten bada eta interesduna ez badago bertan, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez den beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik. **Lehenengo jakinarazpen-saiakera arratsaldeko hirurak baino lehen egin bada, bigarrena ordu horren ondoren egin beharko da eta***





***alderantziz: nolahi ere, bi jakinarazpen-saiakeren artean gutxienez hiru orduko tartea utzi beharko da. Bigarren saiakera ere alferrikakoa balitz, 44. artikuluan ezarritako eran jardun beharko litzateke.***

Bi saiakera horietan ez bada jakinarazpena gauzatzen, 39/2015 Legearen 44. artikuluan ezartzen denaren arabera, jakinarazpena BOEn argitaraturiko iragarki baten bidez egingo da.

Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, bada, aldi baterako berrikuntza garrantzitsu bat txertatzen du bi jakinarazpen-saiakeren praktikan, Auzitegi Gorena jadanik ezarri zuenean sakonduz. Honako hau da aipaturiko berrikuntza: lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina hamabost orduak baino lehen egin bada, bigarren ahalegina hamabost orduak baino geroago egingo da, eta alderantziz, betiere hiru orduko tartea utzirik, gutxienez, bi ahaleginen artean. Azken batean, "ordu desberdintzat" ulertu behar da, zalantzarik gabe, segurtasun juridikoa dakarrena eta jurisprudenzia-interpretazioetarako tarterik uzten ez duena.

Hizpide dugun kasuan, kexagileak ez zuen aukerarik izan itzultzeko prozeduraren hasieraren edukia ezagutzeko; hortaz, ezin izan zuen alegaziorik aurkeztu; gero, ez zuen itzultzeko betebeharra adierazten zuen ebazpenaren berri izan; hori dela eta, ezin izan zuen ez berraztertze errekurtsorik aurkeztu ez zorra zatikatze eskatu; azken hori da kasu honetan interes gehien duena. Hori horrela, erakunde honek ondorioztatu behar du **paperezko jakinarazpena ez zela baliagarria izan, eta ondorioz, egintza ez zela eraginkorra izan.**

**Administrazio-egintza baten baliotasun faltak, oker egindako jakinarazpen batetik eratorri daitekeena bezalakoak, zuzenean loturiko beste administrazio-egintzen baliotasunean eragiten du,** ez baita bermatzen administratuaren defentsa-eskubidea.

Administrazio-jakinarazpena administrazio-egintzaren eraginkortasuna bermatzen duen jarduketa nagusi bat baita administrazio-prozeduran, eta eragina du baita interesdunen benetako babes judizialean, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudenziaik behin eta berriz adierazi duen bezala<sup>1</sup>. Horren harira, gogorarazi behar da KAK aitortu duela jakinarazpen-egintzek *"cumplen una función relevante, ya que, al dar*

---

1

Konstituzio Auzitegiaren 155/1989 Epaia, urriaren 5ekoa, FJ 2  
Konstituzio Auzitegiaren 59/1998 Epaia, martxoaren 16koa, FJ 3  
Konstituzio Auzitegiaren 221/2003 Epaia, abenduaren 15ekoa, FJ 4  
Konstituzio Auzitegiaren 55/2003 Epaia, martxoaren 24koa, FJ 2



*noticia de la correspondiente resolución, permiten al afectado adoptar las medidas que estime más eficaces para sus intereses, singularmente la oportuna interposición de los recursos procedentes”; eta beren xedea honako hau da “finalidad material de llevar al conocimiento” de sus destinatarios los actos y resoluciones “al objeto de que éstos puedan adoptar la conducta procesal que consideren conveniente a la defensa de sus derechos e intereses y, por ello, **constituyen elemento fundamental del núcleo de la tutela judicial efectiva**” babesgabetasuna ekiditen duen EKaren 24.1 artikuluan jaso.*

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez, Lanbidek, jarraitu duen itzultzeko prozedura berrikusi behar du eta espedientea diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientearen berrikuspenaren unera atzera eraman behar du, hau da, bere prestazioak ez berritzeko ebatzi zen unera. Kasu horretan, enplegurako erakunde autonomoak itzultzeko prozedura hasi ahalko luke berriro. Aukera hori hurrengo gogoetaren xedea da.

2.- Azkenengo gogoeta horretan preskripzioaren institutu juridikoa aplikagarria den aztertuko da.

Kexagileak erakunde honi emandako informazioaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasunean eragin dezakeen edozein gertaeraren berri emateko eginbeharra bete zuen; hala, lan-jarduera bat hasi zuenean, bere erreferentziako bulegoan jakinarazi zuela adierazi du.

Arartekoak ez daki zehazki noiz egin zen jakinarazpen hori, baina egiaztatu da bidegabeko prestazioen sorrera eusten zuen berrikusteko prozedura, prestazioa ez berritzeari buruzkoa, 2015eko urriaren 24koa dela.

Hortaz, Lanbidek itzultzeko betebeharra eragin duten egitatearen berri izan zuen unea, beranduez, 2015eko urriaren 24a izan zen; **gaur egun, 2019ko azaroan, zenbateko horiek dagoeneko preskribatuta egongo lirateke 147/2010 Dekretuaren 58. artikuluan aurreikusten denaren arabera; horrek, 4 urteko epea ezartzen baitu;** hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendura igortzearen bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilea).





Horrenbestez, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

Kexak hizpide duen prestazioen erreklamazioaren prozedura berrikus dezala, ez baitira bete jakinarazpena burutzeko aurreikusten diren berme formalak, eta ondorioz, erreklamaturiko zorra preskribatzea erabaki dezala.

